

LIBURUAK

Izenburuak: 'Proba handia', 'Ridel eta Zuhaitz Hiztunak', 'Baobaba', 'Banyan Zuhaitza'. **Testua:** Ana Galan.

Ilustrazioak: Pablo Pino. **Itzulpena:** Miren Arratibel. **Bilduma:** Mondrago.

Argitaletxea: Aizkorri.

Herensugeei, gazteluei eta abenturei buruzko ohiko serieak izan ditut inspirazio iturri. Haietako bat irakurtzen nuen aldiro, zerbait falta zela sumatzen nuen, ez nintzen istorioekin identifikatzen. Hala, herensugeei beste rol bat ematea erabaki nuen. Izan ere, izaki gaizto eta arriskutsu gisa aurkezten dira beti herensugeak. Bilduma honetako herensugeak, ordea, maskotak dira, eta alde

batetik bestera mugitzeko erabiltzen dituzte haien jabeek. Nori ez litzaioke gustatuko herensuge bat izatea eta haren gainean hegari eskolara joatea? Halaxe bururatu zitzaidan bilduma sortzea. Mondrago herensugea, esaterako, *Keats* nire txakurrarengan oinarritua dago. *Keats* Mondrago bezain jostaria eta bihurria da.

Zuk nahi bezala ilustratu al ditu herensugeak eta beste pertsonaiak Pablo Pinok?

Pablo Pino marrazkilaria jeniala da. Xehetasunez beterik daude haren ilustrazioak, eta ikuspegi

originalak eta argi eta itzal egokiak dituzte. Bikain ulertu du bilduma, eta ederki asmatu du pertsonaiei bizia ematen. Oso-oso gustura nago egin duen lanarekin. Idaztearen alde hoberenetako bat da ilustratzailearen marrazkiak ikustea eta «bizitza errealean» nire pertsonaiak nolakoak diren ikustea.

Norentzako bilduma da?

Berez, 7 eta 10 urte bitarteko haurrentzako istorioak dira, baina, esan didatenez, badira bilduma jarraitzen ari diren haur gaztetxoak ere. Kasu horietan, gurasoak ari dira haurrei bilduma irakurtzen, eta oso gustura entzuten dituzte abenturak. 10 urtez gorako gaztetxoek ere oso ongi pasatzen omen dute Mondragoren istorioekin.

Ana Galan

IDAZLEA

«Emozio handiko eta abenturazko istorio dibertigarriak kontatzen dira»

Samarado herriko biztanle guztiek herensuge bat dute. Cale gaztetxoak ere aspalditik nahi du, baina arauak argi diote: 11 urte bete behar dira, eta Anton herensuge zaleak jarritako proba gainditu behar da. Herensugea lortzeko gainditu beharreko proba ez da izango, baina, bilduma honetako abentura bakarra.

Zein dira bildumako protagonista nagusiak?

Cale mutikoa eta haren herensuge Mondrago dira bildumako pertsonaia nagusiak. Calek 11 urte ditu. Hain zuzen, 11 urte bete dituen egunean oparitu diote herensugea: Mondrago. Hegari egin ezin duen herensuge bakarra da Mondrago. Caleren lagunak ere agertzen dira bilduman: Maiatz, la eta Arku. Calek bezala, haiek ere herensuge bana dute. Anton herensuge zale aditua eta Curiel herriko azitia ere agertzen dira, baita hainbat pertsonaia gaizto ere: Wickenburg alkatea, haren semea, Murda, eta haren iloba, Nidea.

Nolakoak dira pertsonaiak?

Hegari egin ezin duen herensuge bakarra da Mondrago, baina, era berean, hura da urarekin beldurtzen ez den bakarra, eta, gainera, izugarri gustatzen zaio jolastea; edozerekin arreta galtzen du, doministiku egiten duen aldiro sugarra botatzen du sudurzuloetatik eta katarroien eta untzien atzetik ibiltzen da lasterka. Cale, berriz, mutiko argia da; kirola egitea oso gogoko du, eta lagun ona da. Maiatz oso neskatila arduratsua da, eta herrian ongien hezita dagoen herensugearen jabea da. Arku taldeko eroa da; kaskoarekin ibiltzera behartzen dute gurasoek, burua txikitu ez dezan. la, berriz, taldeko asmatzailea da, eta hark asmatzen dituen tramankuluek ia beti funtzionatzen dute. Badaezpada, beti traste pila eramaten ditu aldean.

Zer-nolako istorioak kontatzen dira bilduman?

Emozio handiko eta abenturazko istorio dibertigarriak kontatzen dira. Laguntasunak ere berebiziko garrantzia du. Lainoaren Basoan hitz egiten dakiten Zuhaitzak bizi dira. Azkenaldian, Zuhaitzak mozteten ari da norbait. Calek eta haren lagunak egiteko garrantzitsua izango dute: sei hazi topatu beharko dituzte, Lainoaren Basoan erieteko eta Zuhaitz Hiztunak berriro ere hazteko. Liburu bakoitzean, Zuhaitz berezi horietako baten hazi topatu beharko du neska-mutil kuadrillak. Baobab Zuhaitzarena izango da aurkitu beharko duten hazietako bat; enborra urez bete du Zuhaitz horrek, eta horregatik da berezia.

Nor edo zein izan da zure inspirazio iturria?

